

VIII URTEA - III-IV ZENBAKIA

1927 BAGILÀ-LOTAZILÀ

EUSKERA

EUSKALTZAINdia'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



BILBO'N

Euskaltzaindia'ren etxearen

Ribera, 5

DONOSTIA'N

San Iñazio'ren Gutundegian

Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA

BANCO DE ESPAÑA, 3

BILBAO, 1927

ESAERA-ZARAK

II

Ona, Irakurle maitea, Esaera-zařen nere bigařen sařa. Urte askotan Napařoako baztařez-baztar bildu izan nituen esaera-zařen lenengo sařa Euskaltzaindiaren aldizkarian argitaratzeko ematean, ez nuen uste esaera-zařen belar ontatik dagoen bezin usu zegoanik.

Ala ere ain gozo egiten zitzaitelako oien bařengo urřina, dei txiki bat egiten nien orduan Apaiz jaunai «ez ustean beren belafietara datozen esaera-zar oiek» biltzen laguntzeko.

Nere otsa aize duřundarak etzuela galdu ematen du.

Sei ilabeteren buruko emen natorkizute, beste belar txorta, lengoak baňo ere urřin gozatsugoa dueña, zuei guzioi eskeintzeko asmoetan.

Eta esaera-zar auek guziak edo geienak, Napařoa-alde ontan erain ditudan azi bakar batzuek ekaři dituztenak dira; eta Apaiz jaunen baratzetan bilduak ala ere.

—Nola gero?—Lengo aiek Apaiz jaun batzuei erakutsiz. Aiek erakustean edo adieraztean, berak eta beren etxeko edo neskameak, alde artako esaneraz oroitzen ziran eta ona non dituzuten batzuen batzuek. Eztira ain ugari; baňo ain aro labuřean biltzeko, multxo polita iruditzen.

Eztitut, ordea, onenbestekin utzi nai nere era-kusle biotzeko oiek, eta irakurle oiek etzenidaketela

barkatuko iruditzen zait, beren izenak ixiltzea. Ez-tute naski emen azaldu bear ditudan ametsik egiten berak, baño nik bezalaxe maite duten euskeraren onerako danez geroz, or dijoaz.

Baztan'en bildu ditut geienak; berartakoak eta Esteribar'koak ere bai. Lendabizikoak Arizkun'go Monjaen Kapelau dagon Aretxealdeko J. Antonio ta berartako Apaiz-aita Irigaraia ar Gabriel jaunengandik. Baita ere Eñatzun, ango Apez-aita eta beren lagunengandik, baño batez ere Dendarietar Jose Antonio jaunarengandik. Anitz, izena duen Baztango eriān dago beriz Apaiz, Esteribar'dar bat. Eugi'ko semea dabera; Iribarren'dar Frantzisko jauna. Onek berekin duan aŕeba batekin batean esan zizkidaten beren eri ta erialdeko guzi oiek.

Ultzamakoak Oficio'ar Mariano, Lizaso'ko Apaiz jaunari artu nizkion; baita Osakar Xulapen'goak ere.

Basaburu'ko sail bat, Beruete'ko Apaiz jaunari zor dizkiot, au da Villanueva'r Agustin jaunari; eta beste asko, Gartzaron'go Apaiz etxean sukaltzai ze-goan bertako Andre bat.

Banaka-banaka an-emen beste zenbait bildu baditut, gutxi dira ta ez naski edeŕenak ere.

Zuen eskuetan daukazute, ba, Apaiz jaunak, gure eriko buru argien jakinduri eritar, egi bikañez betea. Etzagun galtzen utzi oŕenbesteko ondasuna.

Iruña'tik 1927'ko Garagafilaren 6'ean.

ESAERA - ZARAK

II

Il-ta ondoan, zopak agora.

(AN. baz.) Muerto el burro, cebada al rabo.

Ubaldeak goiti eztu (ez ditu) ekartzen zakařak bertzerik.

(AN. baz.) El río no lleva en su superficie más que la broza. (Sentido material).

De las poblaciones grandes a los pueblos pequeños, no nos viene lo mejor de aquéllas. (Sentido moral).

Itsu-patsu, denak batsu.

(AN. Esteribar). Vaya lo uno por lo otro.

Alakoen batez aituko duzie lepo-in dutela.

(AN. Esteribar). El mejor día oiréis que me he suicidado.

Ongi mendekatuik dauke yaten duena.

(AN. Esteribar). Bien ganado tiene el pan que come.

Baztar guziek iretsi nai tu (ditu).

(AN. Esteribar). Todo lo desea para sí: es un ambicioso.

Orai artuko tu bereak.

(AN. Esteribar). Ahora lo pagará todo

Batek kanta, bertzeak kanta, deabruek dantza.
(AN. Esteribar). En río revuelto pesca el diablo.

Apoteko atsoak pasatuko tuzie.
(AN. Esteribar). Sobrepujaréis a las viejas de Apote. (Por charlatanes).

Gizon gaitzets ori emen dabile!
(AN. Esteribar). Aquí anda ese hombre aborrecido.

Gizon erdoil ori ezpanu ikusit!
(AN. Esteribar). Ojalá no hubiera visto a ese hombre roñoso.

Zure galtza-kordak izain du korapilo ori!
(AN. Esteribar). Tú adolecerás de ese defecto.

Eguäldi (eguraldi) onek orain ere eresan bear du.
(AN. Esteribar). Ahora también va a llover.

Eztio sakeleko odolak irekin, ez!
(AN. Esteribar). No se ha llevado ningún mal rato.

A zer gaztain-mustrikä daukezun.
Qué buen grupo de castaños tiene V.

Potzo-potzo dago!
(AN. Esteribar). Está atontado por el vino, aunque no ebrio.

Kuli-mulikä gabiltz,
(AN. Esteribar). Estamos con poco trabajo.

Naginurä, laratzään dago lo.
(AN. Esteribar). El agua recalentada espera en el llar.

Gure etxeko Andréa nongo, gure aideak ango. Irigarai J'ak «Bigařen Euskalegunetako Itzaldiak» zaion idaztian dakar: *Etxeko anderea nongo, gure aideak ango* 94 ořialdean.

(AN. Esteribar). De donde es la dueña, son nuestros deudos. (Sentido material). Según es la dueña, así son las relaciones de la casa. (Sentido moral).

Auzako zokoan lano, biar denbora sano.

(AN baz.) Cuando en la hondonada de Auza (monte de Baztan) haya niebla, al siguiente día buen tiempo.

Txurkiä alde dute. Irigarai'ek: *Eztakigu alde duen edo*, ibid. 89-gáren ořialdean.

(AN. baz.) La caída de las aguas les favorece. (Sentido material). Están de suerte. (Sentido moral).

Azpi ederák ditu.

(AN. baz.) Tiene buenos perniles.

Galtza bete ipurdi.

(AN. baz.) No le llega la camisa al trasero.

—Zer du ez etortzeko? — Zer duen? Zakuřen maingia.

(AN. Áruazu). Qué tiene para no venir?—Excusas.

Jaungoikoak egin eta limixkatu gabea aiz i. (AN. Áruazu). Amak limixkatu gabea. (Basaburua).

Al hacerte Dios, no tuvo cuenta de darte la última mano. (Dicho a un feo).

Intzätič berariz Betelurä etorí nintzen.

(AN. Intaz). De propósito vine de Inza a Betelu.

Etena egin eta luña bêra jûn zan.

(Gip. Beasain). Se hizo una grieta y la tierra cayó abajo.

Berogei urtëen iraulieran dago.

(AN. Ulzama). Está al caer de los cuarenta años.

Ikurkä-makurkä egin du goldatza.

(AN. Ulzama). Ha abierto un surco muy torcido.

Begieztatu al duzu baso ori?

(AN. Ulzama). Has revisado, ojeado ese bosque?

Begi-emanik dauzkät neretakoak.

(AN. Ulzama, baz.) Ya tengo escogidos los que han de ser para mí.

Elur-urte, patxaran eta gari-urte.

(AN. Ulzama). Año de nieves, año de arañones y de trigo.

Umeak azi ta nekeak pizi. Irigarai J'ak: *Umeak azi, nekeak bizi.* 92-gařen orí.

(AN. Ulzama). Cría hijos y tendrás trabajos.

Oloaz: Otsailen eraiñä oloto.

Martxoan eraiñä olo.

Aprilen eraiñä oloño.

Maiatzean eraiñä, ez olo ta ez oloto.

(AN. Xulapen). La avena sembrada en Febrero, avenaza.

La sembrada en Marzo, avena.

La sembrada en Abril, avenita.

La sembrada en Mayo, ni avena, ni avenita.

*Eluraz: Izotzilekoan burniä,
Otsailekoan, altzairuä,
Martxokoan da ariä,
Aprilekoan da zurä,
Ta Maiatzekoan gazurä.*

La nieve: En Enero es hierro,
en Febrero acero,
en Marzo es piedra,
en Abril madera
y en Mayo es suero.

Arpelaria (1) lorean, ardiäk gosean; arpelia igarzen, ardiäk asetzen (AN. Osakar).

La pamplina o hierba majarera en flor, entretanto la oveja de hambre; aquella se seca, la oveja está harta.

Sapa gaitzä dago.
(AN. baz). Hace un calor pegajoso.

Sargoi dago gaur.
(AN. baz). Hoy está caluroso.

Ardiäk ederki alatzen dire. (AN. baz, Ullzama, Basaburua).

Las ovejas se desparraman paciendo muy bien.

Sabai-sari audiä du.
Tiene que pagar mucha renta por el alquiler de hierbas. (Se dice en el Baztan, de quien lleva a parte los campos labrados, a medias con su dueño; mas las hierbas las tiene en alquiler).

(1) Arpelafari Ullzama, Basaburua ta Baztanen, sapelafa esaten zaio.

Nondik aztarnatu dute ori?

(AN. baz.) De dónde han inventado esa mentira?

Aztaka-aztaka dabil.

(AN. baz, Ullzama, Basaburua). Anda a tientas, a ciegas.

Ori muļo utzik du.

(AN. baz). Eso quedará en nada.

Ori muļo utzirik...

(AN. baz). Dejando eso aparte...

Etxeko suä, etxeko autsez itzali. (Irigarai J'ak Bigařen Euskalegunetako Itzaldiak» zaion idatzian dakar: «*Etxeko sua etxeko autsaz estali?*»)

(AN. baz). Lo de casa, quede en casa.

Mulikätiuk nago.

(AN. baz). Estoy chirriado, hecho una sopa.

Txelatuik nago.

Estoy hecho una chita. (AN. Ullzama).

Bi etxe oiek elkarí daokala daude.

(AN. baz), Esas dos casas están contiguas.

Bi jaiäk daokala eldu dire.

(AN. baz). Vienen dos fiestas juntas, seguidas.

Erámu egunëan zer aize, urte guzien aize urä.

(AN. baz). Cual es el viento del día de Ramos, tal es de todo el año.

Ba! eztu mingañen makurík.

(AN. baz). No tiene mal en la lengua. (Sentido material).

Es buen hablador, etc. (Sentido moral).

Oñaze ganalak tut.

(AN. baz). Mis dolores son llevaderos.

Beti segurotik jokatzen da ori.

(AN. baz). Ese va siempre a negocio seguro.

Auntzä ardiei il-ematen.

(AN. baz). Consejos vendo y para mí no tengo.

Ari zûn euriä yautsi-ala.

(AN. baz). Llovía torrencialmente.

Laŕuäen (laŕuaren) beteán auntuä dago.

(AN. baz). Está a punto de reventar. (Se dice de una hinchazón, o de uno extremadamente grueso).

Elarétilk atera ta sasian sartu.

(AN. baz). Huir del lazo para caer en el hoyo.

Au, au lekeda!

(AN. baz). Qué pesado es ese!

Au tekela zaŕat!

(AN. baz). Qué latoso!

Iñestilä gogoŕa da ori!

(AN. baz). Ese es un gran comediante, remedador.

Obe da bein goŕi, ezenez, beti ori. *Eta*: Obe da beti ori-ori baño, bein goŕi.

(AN. baz). Más vale romper de una vez, que andar a medias, o estar toda la vida sufriendo.

Antxu txaŕa, beti bildotx. Irigarai J'ak: Antxu xaŕa, beti bildotx, ibid. 91-gaŕen orí.

(AN. Eŕatzu). El que de joven queda raquítico nunca crece. (Sentido material).

El que de joven es sin fundamento, así sigue de viejo. (Sentido moral).

Eztik zangoan miñik.

(AN. baz). No tiene dolor en las piernas. (Sentido material).

Qué de prisa va! (Se dice del que va de prisa).

Eztut ikusi au baño gizon logiagorik, eztaere ber-te ori baño sumáagorik.

(AN. baz). No he visto hombre más flojo (inactivo) que éste, ni más fogoso que aquel otro.

Aráyo pozoindue!

(AN. baz). Qué cascarrabias eres tú!

Orék babak aterako tik eltzetik (AN. Gartzaron).

Orék gaztañek atrako tik eltzetik. (AN. baz).

Ese ya sacará las castañas del fuego.

Uŕungoa uŕez, ta urbiletik luŕez. Irigaray J'ak:
Uŕuneko eztaiaik uŕez, eldu ta luŕez. Ibíd. 94.

(AN. baz). De luengas tierras grandes mentiras.

Elezuritzen ari dire.

(AN. baz). Están aclarando patrañas o dando explicaciones.

Or perma!

(AN. baz). Ahí te entiendast o ahí te las veas!
fastídate!

San Gregorio: kazkaaŕa agoan dago.

(AN. baz). Por la fiesta de S. Gregorio, con frecuencia cae granizada.

Eíota-zañak zil du ebastea egunëan agur bat irin.
(AN. baz). El molinero puede tomar un puñado de harina al día, sin cargo de conciencia. (Frase irónica?).

Elur-melur, eztiat ire beldur; badiat etxeán arto ta egur.

(AN. baz). Variante del refrán de Mezkiritz publicado en el folletín anterior.

Akefaren adaára baño makúragoa duk ori.

(AN. baz). Ese es más torcido que el cuerno del chivo. (Sentido material).

Es más torcido que mandado hacer. (Sentido moral).

Arotzaën etxën (etxeán) txotxa geén.

(AN. Basaburua). En casa del herrero, cuchara de palo.

Zure esanak eta auntzäen gauerdiko eztulä bik bat.

(AN. Beruete). Tus dichos no valen un ardite.

Erbie pasatu ta lazoa jaři.

(AN. baz). Pasada la liebre, pones el lazo. (Sentido material).

Nunca eres oportuno. (Sentido moral).

Eztute gaizki soildu!

(AN. Beruete). No le han robado mal.

Kandelera otz, Neke joan dela poz (negue joan da motz). (Gartzaron).

Kandelera bero, Neguä eldu da gero.

(AN. Beruete). Cuando por Candelera hace frío, pasados son los trabajos.

Cuando por Candelera calienta, invierno nos espera.

Len zena, gero zena, Beuteko Beazena.

(AN. Laŕaun). Genio y figura, hasta la sepultura.

Ez duguna ba-giñu, txeŕie il ba-giñu, zartarie ekaŕi-fa urdaie eŕeko giñu (n.).

(AN. Beruete). Graciosa manera de decir: no tenemos qué ofrecerle.

Basoan jaio-fa basoan nai, gure zamalkoak eztik etxera nai.

(AN. Beruete). Donde nace, pace.

Gora begitu ta artoa, bera begitu ta patata, atarira begitu ta elurá, gaur nor ni bezala!

(AN. Beruete). Si miro arriba tengo maíz;

si miro abajo tengo patatas;

si miro afuera veo nieve.

Quién es hoy más feliz que yo? (Sentido material).

Quien se contenta con poco, vive feliz.

(Sentido moral).

Donosti ayeka goazen,

Vamos hacia San Sebastián. (Guip. Rentería).

Babaz: Txikiä ba-nintzen, aundiä ba-nintzen, Apirilén lorean nintzen.

(AN. Odieta). Sea pequeña, sea grande, en Abril estoy en flor. (Se dice de las habas).

Gariz: Txikiä ba-nintzen, aundiä ba-nintzen, maiatzean buruän nintzen.

(AN. Sakana-Zuazu). Sea pequeño, sea grande, en Mayo he sacado la cabeza. (Se dice del trigo).

Azienda aruläk akakoso asko.

(AN. Sakana-Zuazu). Al perro flaco abundancia de pulgas).

Aharaiz entzunen du!

(BN. Luzaide). Ojalá escuche el Señor!

Agian eroriko aiz!

(BN. Luzaide). Ojalá caigas!

Kaſalin, Kaſalin, olo xuriak efo-in din, beltxak ere mokoan din, arek ezpadu eſoiten, ire bizkaſak pagaturen din.

(Aezkoa). Da un aviso del castigo que habrá de sufrir la ladronzuela, en caso de no aparecer lo que se teme haya hurtado.

Kaſalin, poſolin, kaſuk urdaia jan din, kaſakumik olata, iretzat ain (aien) ordata.

(AN. Laſaun). El que se descuida todo lo pierde. (Sentido moral).

—Zertara etortzen zara Apezaren etxera? — Ari belixaen aitzekian txokolatia artzera.

(An. Bertizarana). (Se dice de las que siempre llegan a tiempo de tomar algo).

Lezea baño ilunago dago.

(AN. Lizaso). Está una noche oscurísima.

Itsu-matsu, denak alatsu.

(AN. Ulzama-Basaburua). Poco se diferencian unos de otros.

Nola etorri ala joan. (AN. Basaburua).

Urek ekarie, urek eraman. (Ibid.)

Zerk ekaři, ark eraman. (Leiza).

Aizeak ekařiä, aizék eraman (Laŕaun y Mendaro).

La ganancia segün entra así se va.

Etxe ori eřekara doaie.

(AN. Basaburua). Esa casa se hunde, se pierde.

Ezkur-urte, sagu-urte.

(AN. c.) Año de bellota, año de alimañas.

Érotan egon eta bidean laster.

Érotan beta ta bidean presa (Leitza).

(AN. c.) Quien para en el molino, corre en el camino.

Zoři biztûk bi ozka egîfen ū.

(AN. Basaburua). El rico por sorpresa es doblemente cruel.

Azken-atsetan edo azkenekotan dago.

(AN. c.) Está agonizando.

Zer mia duen ořek!

(An. Gartzaron). Qué charlatán!

Auréko dantzarik erakusten dio ondokoari, nola
egin. (AN. Gartzaron).

Aurékoak erakusten dio atzekoeri nola dantzau.
(Gip. Mendaro).

El mal ejemplo arrastra.

Elurák isten ū atarik.

(AN. Gartzaron). La nieve imposibilita al pobre la
ganancia.

Beroa geldiū da oraintxe!

(AN. Gartzaron). Lucido se queda!

Esanean-esanean ezpada, ezin lanik egiñazi!

(AN. Gartzaron). Si no es a puro de machacar, no puede hacérsele trabajar.

Beste egitekorik etzuenak, eskaratzäa landu emen zun.

(AN. Gartzaron). Quien no tenía otro quehacer, labró su zaguán. (Sentido material).

El perezoso nunca tuvo idea buena. (Sentido moral).

Urbilduak egiten fu (ditu) saltorik audiak. (AN. Basaburua).

El agua de los remansos, da los más grandes saltos. (Sentido material).

Del agua mansa libreme Dios, que de la corriente libraréme yo. (Sentido moral).

Martxoan lañoa noraño, Aprilen eluña aráño.

(AN. c.). Variante dialectal del de Urzainki.

Martxoko ostotsa, berogeit eguneko ekaitza.

(AN. c.). Trueno de Marzo, trae su cuarentena de temporal.

Bizi naiean, biziä galdu.

(AN. Gartzaron). El ansia de ganancia acorta la vida.

Ardi beltxa bilatzeko gau ona zeok!

(AN. Gartzaron). Buena noche para encontrar la oveja negra! (Sentido material).

Qué noche tan oscura! (Sentido moral).

Ire leiotik begi zak lenik bařena!

(AN. Gartzaron). Médico, cúrate a ti mismo, examíname a ti mismo. (Sentido moral).

Zipitā utse baita ori!

(AN. Gartzaron). Ese es puro veneno.

Eztik katilupean idukiko, ez!

(AN. Gartzaron). No lo callará largo tiempo.

—Jateko ori eztut nai.—Bai-uke il-ta irugañenean!

(AN. Gartzaron). No lo quieras? Pues no lo pillarás cuando quieras!

Patxaran-urte, irin-urte.

(AN. Gartzaron). Año de arañones, año de bienes.

(lit. de harina).

Patxaran-urte, elur-urte.

(AN. Gartzaron). Año de arañones, año de nieves.

Yoanak baño etorriak eztire obreak.

(AN. Gartzaron). Los que han venido no son mejores que los que se han ido. (Se aplica al tiempo y a las personas).

Oñezkoari muzin ta zaldizkorik ezin, gelditu da ori.

(AN. Basaburua, Ulzama). Se dice de quien apetece para casarse alguna persona superior a su rango y queda desilusionada.

Eztaukate ur garbia aterarik!

San Marko: Kazkaára agoan dago!

(AN. c.). Como no saquen agua limpia!

(AN. Basaburua). Por S. Marcos caen granizadas.

Asto-añak ume egiñen dik i mugitu orduko!

(AN. Gartzaron). Ya ha pasado una eternidad para cuando tú te muevas.

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Epaila'
ren 23'an.

Batzar aldi ontan euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, Kanpion, Urkijo, Landeretxe, Eguskitza, Intzagarai, Lakonbe, Etxegarai ta ordeko Muxika ta Garitaonandia. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da bazaaldiya.

I.—Kanpion jaunak esan digu, gizon aberats batetik, Martin Urutia jaunak, eskola beriyak iratsi nai dituela Oronoz-en ta on litzakela gizon onengana Euskaltzaindia urbiltzea, esanik, eskola beri oyetan euskeraren alde alegin egiteko. Gizon aberats au Donostia'n bizi da ta Euskaltzaindiak biali du bere arteko bat jaun oferi eskari ori egitera.

II.—Atsegīñez ikusten du Euskaltzaindiak Azkue ta Urkijo jaunen Madrid'ko elezaindirako izendamena.

III.—Azkue jaunak adierazi dizkigu aita Mendiburu'ren idaztankera (estilo) ta adizkerak «Otoitz-gai»-etatik ateriak.

IV.—Urkijo jaunak irakuři digu Alemany jaunari erantzun diona, onek, euskeraren gai zerbařit artu-ta, lantxo bat argitaratu duelako *Real Academia de la Lengua* boletiñean.

V.—Azkue jaunak jařaitu du bere Mendiburutzazko lana.

VI.—Poz aundiz irakuři dira Altube euskaltzañak Amerika'tik bialtzen dizkigun zorionak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoi-
tzez amaitu da batzaŕaldi au.

**Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Epaila'
ren 24'an.**

Auŕeko batzaŕaldian aipatzen diran euskaltzain
berak datozi eta Garitaonandia ordekoa.

Otoițez asi da batzaŕaldi au.

I.—Lakonbe jaunak irakuri dizkigu Intxauspe apai-
zak Luziano Bonaparte'ri egindako eskutitzak.

II.—Eguskitza, jaunak Mogel'en *Catecismo expli-
cado*-tik ateratako itz berezi batzuek irakuri dizkigu
ta oyen txeŕenda gorde ta jaso bear da garaiz argita-
ratzeko.

III.—Azkue jaunak Giputx-aditzaren idazki-azter-
pen bat irakuri digu.

Ta beste gairik izan ez da, otoițez amaitu da
batzaŕaldiya.

**Bilbo'n. Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Jo-
ŕaila'ren 28'an.**

Batzaŕaldi ontara euskaltzain jaun abek datozi: Az-
kue maipuru, Urkijo, Landefetxe, Eguskitza, Olabide,
Lhande, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta ordeko Oleaga
ta Ormaetxea jaunak. Otoițez asi da katzaŕaldia.

I.—Euskaltzainburu jaunak Hugo Schuchardt
(G. B.) jaunaren il-beriya eman digu. Jaun au gure
Euskaltzaindiko deduzko lankidea genuen ta gizon
jakintsu ta euskaltzale onen gorespene itzaldi xamur
ta egokiyaz euskaltzainburu berak ederki egin digu.

Euskaltzaindiak ziñez minberatua dakar bere biyotza gizon onuratsu auxe galdu duelako; bañan Jainkoaren nayera menperaturik, otoiñz egin du Schuchardt jaunaren animaren alde. Jakintsu audi onen oroinmenez, Euskaltzaindiak ařen irudiya bere gelan ipiñiko du ta *Baskische Studien* deitzen dan lan edeřa gaztelerez aldatu. Len bada Bähr jaunak egindako itzulpena ta itzulpen auxe ezertan arbuyatu gabe, Euskaltzaindiari deritzayo, Bahr'en orixe beste oar ta adibidez ornitu litekela. Ortarako aita Polikarpo Bähr'ekin egon bedi ta alkarr ar bezate. Euskaltzaindiak urtero eragiten zuen *Schuchardt* deitzen dan sariya, 500 pesetakoa berauxe, ta euskaltzale jakintsu ori igortzen zizkiyon peseta edo diru oyek. Orain auxe erabaki du: 1928 gařen Jořailean asi-ta, urtero-urtero batzaldi bat eragingo du. Sari au, guzi edo zati, emango zayo, *Euskal-zenbakintza* gai arturik, ederēn datořen lanari. Lan onek gutxien bearko ditu 20 ořialde, 8'ko luzean ta egileareh izena eskutatu bear da estalkitxo batez, garaiz azalarazteko. Lanak Euskaltzaindiaren etxera zuzendu bitez: Ribera, 5, Bilbao 1928'gařen Jořailaren lenbiziko egun arteraño. Ez dute lan oyek *gramática* eraz azaldu bear, bai ordea sakon ta azterpenbidez arazo edo gai bikain auxe, eřo-eřoz arturik, orainarte ořetzaz itz egin edo idatzi danez beri emanik ta bero-rixe zer dan ta zer deritzayon idazleari agerturik ořetzaz gaňeko iritxipen ta adigayak. Idatzi litezke lan oyek: euskeraz, gaztelerez, prantzeraz, italerez, portugerez, alemaneraz ta ingeleseraz. Ez dira batzaldi ontan iňolaz ere sartuko amabi euskaltzaňak, epaile izan beařa naikoa zaye-ta. Batzaldi onen gaya alda-ta-alda jibiliko da; batean ele-gaya, uřena elerti-gaya. Lenbiziko urtekoa esan danez, ele-gaya da: uřengoa beaz elerti-gaya izango da.

II.—Azkue jaunak lan polit eta aratza irakurí digu: *Curiosidades morfológicas de Barambio* ta egiyaz erí ontan dabiltsan itz bereziyak ta adizkera bikain batzuek ederki ta ederki azaltzen ditu.

III.—Etxegarai jaunak irakurí digu: *Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas*. Epaile artean ta auzi-árazotan ibili litezkén itzak lan onek zerbaite ere beríten dizkigu ta Euskaltzaindiaren lanetan sartzen da itz aben ardurapena. Gure *Euskera*'n azalduko da Etxegarai jaunaren lana.

IV.—Eguskitza jaunak Mogel-engandik eteratako itz eta adizkerak ekaři dizkigu. Mogel Jose Antonio'ren *Catecismo*'tik.

Ta beste gai batzuek bigaramonterako utzi-ta otoi-
tzez amaitu da batzařaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxearen, 1927'ko Jo-
raila'ren 29'an.

Auřeko batzařaldian aipatzen diran euskaltzain eta ordeko berak dato. Otoi-
tzez asi da batzařaldia.

I.—Olabide jaunak idoro ditu orainarte entzun ez
diran euskal-aditz abek *ekidin* eta *idin*: biyak Leiza-
ŕaga ta Axular'ek badakarzkife.

II.—Azkue jaunak lan eder-eder bat irakurí digu:
Apéndice al estudio del subdialecto aezkoano. Lan
iu Napáoa'ko *Euskeraren adiskideak*'ri eskañiya
dago. Ona emen lan ořen atalak: a) amairu ipui; b)
Aezkoako lamiňak; d) oitura ta aztikeriyak; e) atzotitz
ta esakerak; g) ume solasak; i) abesti-zařak ta azke-
neko iru ataletan *fonetikako* gauzak, adizkerak eta
oraindik iztegiz bildu gabeko itzak.

III.—Euskaltzaindiak erabaki du Motrikun egingo dan *Euskal-egunera* joatea, bere ordezko jaŕirik Azkue ta aita Intza jaunak. Liburu batzuek banatuko dira ango mutil eta nexka artean.

Lekarotz'ko euskal-azterketara ezin joan liteke euskaltzain ordekorik, bañan ango mutil artean ere liburu batzuek zabalduko dira.

Ta beste gairik izan ez da otoițez amaitu da batzaŕaldi au.

**Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Oŕila'ren
27'an.**

Batzaŕaldi ontara euskaltzain jaun abek datozi: Azkue, Kanpion, Urkijo, Londéretxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta Muxika ta Garitaonandia euskaltzain ordekoak. Otoițez asi da batzaŕaldia.

I.—Aita Iraizoz'ek Bähr jaunarekin egin bear duen Schuchard'en lanerako, Iraizoz'i biali bear zayo Schuchard beronen idazti alemandaŕa.

II.—Azkue jaunak esan digu Bizkai-Aldundiari eskatu ziyola len, alako toki bat Euskaltzaindiarentzat ta agindu ziyotela gerorago. Orain da erati ona eskarriya beritzeko ta eskari ori egitea erabaki da.

III.—*Batasunerako bidean* agergalu jaŕi-ta, Azkue jaunak irakurí digu bere lan bat. Muxika jaunak idatzi duen *Pernando Amezketará* dala-ta. Oarpide batzuek egiten dizkiyo Azkue jaunak Muxika jaunari; onek aitzakotzat ta eskerbidez artzen dizkiyo, batez ere beste elastaldi bat egin bear daneko gogoan arturik.

IV.—Uŕengo batzaŕaldirako ekaŕiko da, r gogor ta r bigunaren txosten bat.

V.—Urgazle jaun batek galdetzen digu: berak egin bear duen idazti baterako (Bizkai ta Gipuzkoa'n batxu dabiltsan itzak batez ere adierazirik) alegiya Iztegiaren Egilearen baimenik bear ote duen; edo naikoa ote zayon asmo auxe, alde auréz Euskaltzaindiari adieraztea. Erantzun bear zayo: ez duela, bere lanerako, iñoren baimenik bear bere-bere eskuko zayola-ta.

VI.—Aita Intza'k aztertu ditu: Añibañon *Kristau Dotriña* napaíeraz egiña ta *Lore sorta espiritualia* bizkayeraz. Azterpide onen berí batzuek eman dizkigu.

VII.—Aita Olabide'k ere *Gramática Vascongada* de Fray Añibarro (Pedro) non edo an idoro du ta onen berí eman digu,

VIII.—Leizaáaga'ren euskereari oar batzuek ezári dizkiyo Lakonbe jaunak eta

IX.—Etxegarai jaunak esan digu nolaz irakuíriago egin litekean gure aldzizki *Euskeria*. Bere aburuz on litzake, ageriyak bederik euskeraz ezik, prantzeraz ta erderaz asaltzea. Auxe erabaki da.

Ta beste gai batzuek bigaramoneraeko utzi-ta otoi-
tzez amaitu da batzáraldi au.

Donostia'n, Aldundi - Jauregian, 1927'ko Oñila'
ren 28'an.

Auréko batzárean aipatzen diran euskaltzain ta ordeko berak datoz. Otoiitez asi da batzáraldia.

I.—Eguskitza jaunak esku-idazti bat irakuí digu, euskeraz egiña ta dirudienez Xemein'go Eleizarako ta Mogeldaáen aurékoa. Itz batzuek jaso ditu.

II.—Azkue jaunak *Curiosites du Pays Basque* Daranaíz jaunarena dala-ta, irakuí digu bere lan bat lapurteraz egiña.

III.—Aita Intza'k itz beri batzuek ekaři dizkigu, an da emen bilduak bañan geyenak Ultzama'koak.

IV.—Aita Intza'k esan digu, Leitza'n jai audi batzuek gertu nai dituztela, zerbaiten eun urte betetzea dalako. Napañoa'ko *Euskeraren adiskideak* an izango dira jai oyetako egun batez. ¿Euskaltzaindiak egin ote lezake bere euskal-egun bat? Auxe erabaki da: Aita Intza'k galde bezayo Leitza'ko Udalari zer dala-ta ote dituen jai oyek ta egoki liteken Euskaltzaindia angoxe jayetan asaltzea; aita Intza'k berak uřengo batzařaldian esango digu.

Ta bëste gairik izan ez da, otoițez amaitu da batzařaldi au.

Naparoa'k erizkizundiari erantzun diona

ITZEN OTSA

1.^a A + A.

- A) *Arébara* . . . 3 efitan (Espar, Eskarotz, Yaufi). Salazarko ibafean.
árebea . . . 1 » (Urdi).
arebia . . . 3 » (Olazti, Bakaik, Iturmend).
- B) *Arébaki* . . . 1 efitan (Olazti).
árebek . . . 1 » (Iribéf, -aezk).
arebak . . . Gañerako efietan.
- Z) *Ámandrea* . . . (Ustafo).
amandria . . . (Urzaink).
ama . . . Gañerako efietan.

2.^a D vocal-artean.

- A) *Bat edo bat* . . . 37 efitan (Ulzam, Bazi, Aezk, Efonk).
» *eo* » . . . 26
- B) *Edan* . . . 41 efitan (Edo esan dutenetantsu).
eran . . . 8 » (Irib-aez, Goizu, Betel, Olazt, Yabar, Urzaink, Ustafo, Arizk).
ean . . . 24 » (Lañaun, Araitz, Basabu, Sakan).
YAN = beber. 1 » (Alsasu).
- Z) *Eduki* . . . 1 efitan (Bidang).
iduki . . . 35 » (Ulz, Bazi, Prantzi-ald).
iruki . . . 2 » (Abaufeg, Orozbet).
irugi . . . 2 » (Olazti, Etx-aran).
uki . . . 1 » (Egiafet).
edoki . . . 2 » (Esparz, Yaufi).
eoki . . . 2 » (Azpir, Lezet).
euki . . . 12 » (Lañaun, geien). Ez *euki* Bizkayan bezala *ëuki* ordea.
uruku . . . 1 » (Urzain).
udigi . . . 2 » (Añuatz, Irañet).
uzai . . . 2 » (Liz-Beng, Alsas).

<i>etxoki</i>	.	.	1	efitan	(Esparz).
<i>itxiki</i>	.	.	1	»	(Esparz).
<i>euski</i>	.	.	1	»	(Bakaik).
<i>eutsi</i>	.	.	2	»	(Iturmend, Lakuntz).
<i>ekun</i>	.	.	1	»	(Ustañoz).

3.^a *E+A.*

A)	<i>Bear.</i>	.	.	39	efitan.
	<i>behar</i>	.	.	1	» (Luzaid).
	<i>beer</i>	.	.	1	» (Alsasu).
	<i>ber</i>	.	.	5	» (Iturm, Bakaik, Urdi, Añuatz, Olaz).
	<i>bar</i>	.	.	1	» (Ustañoz).
	<i>biar</i>	.	.	22	» (Ullizam, Bartz, Prantzi-ald).
	<i>bier</i>	.	.	2	» (Etx-Aran, Irañet).
B)	<i>Luzea</i>	.	.	20	efitan (Araitz, Basaburu ñiki).
	<i>luzee</i>	.	.	1	» (Uitzi).
	<i>luzia</i>	.	.	44	»
	<i>luzie</i>	.	.	1	» (Irañet).
	<i>luzii</i>	.	.	3	» (Beruet, Lekunb, Madoz).

Oar.—Uñizti'ko efietan ere *ii* badute, baño ez dire bildu Iribas ta Ali ta beste. Nik gogoan daukadanaz, 31 efik bear egiten dute, Uitzi-inguruari nagokala: Saldits, Labain, Eratsun, Gofiti, Albisu, Efazkin, Bara(i)bar, Iribas, Ali, Astitz, Oderitz, Añuitz, Mugiro, Aldatz, Etxafi-lañaun, Uñabe, Aizarotz, Erbiti, Juantsaras, Ilañegi, Uñiza, Latasa, Etxaleku, Zañantz, Goldaraz, Irurutzun, Gaintza, Uztegi, Azkarate, Atalo, Añibe.

4. ^a	<i>F.</i>	<i>Pilipe</i>	.	9	efitan (Oste, Aspir, Madoz, Uitzi, Leitz, Gartza, Luzai, Goizu, Etxalar).
		<i>poruak.</i>	1	»	(Iribet-aezk).

Gañerakoan *f* oso sarturik dago.

5. ^a	<i>Egun.</i>	.	.	52	efitan.
	<i>ëun</i>	.	.	18	» (Lañaun, Basaburu-ñik).

6. ^a	<i>Ian.</i>	.	.	30	efitan (Ullizam, Basabu, Bartz, Prantzi-ald).
	<i>xan</i>	.	.	17	» (Aezk, Salaz, Efonk).
	<i>jan.</i>	.	.	24	» (Lañaun, Sakan).

Geroz 47 efitan *j* gaberik. Batzuk bietara asi dire; Lañaunen ere záñak oraindik yan esaten dute.

7. ^a	<i>Egia.</i>	.	.	22	efitan (Aezk, Salaz, ta an emen).
	<i>egiya</i>	.	.	18	» (Prantzi-ald, ta sakanald).
	<i>egiye</i>	.	.	2	» (Irañet, Lekar).

egie. . . . 24 efitan (Laſaun, Ulzam).
egii. . . . 3 » (Ezkur, Madoz, Beruet).

8.^a *I + G.*

- A) *Igortzi*. . . . 28 efitan (Ulzam, Bazt, Aezk, Pr.-ald).
idortzi. . . . 2 » (Etxal, Zubiet).
iyortzi. . . . 7 » (Sakanald).
iortzi. . . . 5 » (Ařiet-artz, Yaben, Egiafet, Os-
teritz, Iragi).
idurtzi. . . . 1 » (Ezkur).
idurtzi. . . . 1 » (Afuatzu).
iyurtzi. . . . 3 » (Liz-beng, Iturm, Lakun).
irurtzi. . . . 1 » (Irib-aezk).
iurtzi. . . . 15 » (Laſaun geien).
taraka. . . . 1 » (Espartz).
maroskatu. . . . 2 » (Yauři, Ustaf).
maruskatu. . . . 2 » (Irib-aezk, Abaufep).
- B) *Igesi*. . . . 29 efitan (Aezk, Ulz, Bazt).
iyesi. . . . 11 » (Sakanald geien).
idesi. . . . 2 » (Afuatzu, Etx-Aran).
iesi. . . . 13 » (Basabur, Laſaun).
iasi. . . . 6 » (Laſaun).
iyasi. . . . 1 » (Bakaik).
inesi. . . . 1 » (Irib-aezk).
iñesi. . . . 2 » (Bidang, Ustaf).
iñersi. . . . 1 » (Urzaink).
- Z) *Igo*. . . . 2 efitan (Goizuet, Olo, *igo goiti*).
ijo. . . . 7 » (Sakan).
ido. . . . 2 » (Beraraendi, Lekunb).
iio. . . . 2 » (Lezet, Intz).
io. . . . 7 » (Laſaun).
ion. . . . 1 » (Nabaz).
egan. . . . 1 » (Donamari).
igan. . . . 17 »
idán. . . . 2 » (Ařiet-artz).
iyán. . . . 1 » (Orozb).
ian. . . . 5 » (An emen).
igen. . . . 1 » (Afaiotz).
iyen. . . . 7 »
ien. . . . 4 » (Oskoz, Yaben, Iraiz, Lizas).
ihen. . . . 1 » (Lantz).
itzoo. . . . 1 » (Etxaf-Aran).

*itzo . . . 3 efitan (Áruatz, Liz-beng, Arbiz),
goiti yoan . . 3 » (Zubiet, Amaiur, Ituren).*

Ien goitire; yautsibeitire Lizaso'n.

9.^a *I + L.*

- A) *Il. . . 47 efitan.*
II. . . 23 »
Hil. . . 1 » (Alsasu).
Ila . . . 2 » (Ustaf, Urzaink).
Ilia (e) . . . Gañerako efiętan.
- B) *Egile, langile. . . 17 efitan (Aezk, Eronk, Bazt, Sak).*
egintzale, tntzale . . . 12 »
egile Gañerako efiętan.
- Z) *Mutila. . . 23 efitan (Aezk, Salaz, Bazt).*
Gañerakoetañ I-rekin.
- Orkatila ordez: aztal-exur, aztalbehaři, txunguña, Ondaguña, zangoxunta, ixormio, txurmio, txongatil, txonkatil, txongil, txongolo, txonkolo, ortxâpiño.*
- D) *Zila. . . 9 efitan (Amai, Olazi, Urdi, Bakai, Iturm, Alsas, Iragi, Áfaiotz, Arizk).*

Zile, ziře, animaliena; kristauena *zilko, xilko, txilko, zilbor, txilbor, xilgor, txilgor, kixkolde* (espartz, yaufi) bixkolte (bindangoz). Ez da zile, ez da ziře = «no es lícito», eřirik geienetan; *ez da sori* Osteritzent.

10. *I + N.*

- A) *Zazpina (e). . . 13 efitan.*
zazpira (e) . . . 34 » (Ultz, Bazt, Aezk, Salaz, Eronk, Bortzefiet).
zazpirana . . . 1 » (Eskar).
zazpiňa (e) . . . 20 » (Lafaun geien).
- B) *Arin 27 efitan (Bazt ald geien).*
ariň 40 »
«Ligero» esateko zaloi (eskarotz), zalui (osteritz).

11. *I + S.*

Isildu. 4 eritan (Ariet-artz, Azpir, Egiajet, Afaiz).
ixildu. 64 »

12. *I + T.*

Zuritu 34 efitan (Prantz-ald geien).
zuriňu. 35 »

13. *I + TS.*

- Itsu*. 37 efitan.
itxu. 36 » (Lafaun, Burund, geien).
utsi. 3 » (Bidang, Urzaink, Ustarr),

14. *Y + TZ.*

- A) *Balitz* Efi guzietan
Balitze 7 efitan. (Lafauren, Basaburen eta a,
Maiz Entzuten da).
- B) *Litzake*. 25 »
litzake 31 » (Lafaun, Sakan, Ultzan,
Bazi).
liztakete 2 » (Abaufeg, Abaurep).
leiteke 1 » (Alsas).
liteke 2 » (Orozbet, Espar, Yauñi).

15 *Y + Z.*

- A) *Izan*. 63 »
izen 7 » (Alsas, U-Arak, Irañ, Nabaz,
Lizas, Uitz).
- B) *Gizona bizirik* . . . Efi guzietan (Batzutan, Bizi(r)ik,
Bizia, etc.).
- Z) *Zoríts beterik* . . . 5 efitan (Lakun, Izañ, Arbiz, Liz-
Beng, U-Arak)
zoriz Gañerako efi guzietan.

16 *II + d*

- A) *Bildur* 27 efitan (Lafaun, Sakan).
beldur 40 »
bilður 2 » (Leitz, Etxaran).
biñur 1 » (Ezkuf).
- B) *il da* Efírik geienetan.
il de 16 efitan. (Ultz, Bast, Sakan, Geien).
il̄ da 4 » (Etxalar, Uitz, Mad, Azpir.).
il̄ de 2 » Afaiz, Alkoz).
hil da 1 » (Oroz-bet).

17. *In + d*

- A) *Indar* 48 »
indar 4 » (Bera, Lesak, Ezkuñ, Leitz).

ingar 1 » (Lakuntz) Ultzin ere bai
zâfak.

inger 1 » (U-Arak).

inder 18 » (Imotz, Ultzan; baztanen eta
sakan batzu).

B) *Ezin du*, (dau sakanald). . . 51 eñitan.

ezin du (do) 4 » (Lezak, Ultz, Al-
koz, Narbart).

Oar. Napafoako eñi askotan, aurki geienetan, ez da esaten
ezin du, tarteko verborik gabe: *ezin egin du*, *ezin ekarí du* t. a.
baño. *Eztoke, etzake, eztezake, ez dauke* (yaufiet) t. a.

18 O + A

(A) *Besoa*. . . . 42 eñitan.

besua 28 » (Prantzi-Ald, Bazi, Ultz, Sakan).

B) *Noa* 15 »

noiae 21 »

noaje 1 »

noae 1 » (Irib-Aezk).

nae. . . . 4 » (Abauré Bietan, Afiet - Ariz,
Osteritz).

naie 12 » (An Emenka).

nua 6 » (Luzaid, Urzain, Liz-Beng, Etx-
Ar, Lakun).

nuaye 1 » (Narbart).

nuie 4 » (Lesak, Bera, Donamar, Ituén).

niyun 4 » (Olazti, Bakai, Urdi, Ituém).

niyu 1 » (Alsas).

Geroz oa (noa, noiae, noae) 36 eñitan

19 R vocal artean.

A) *Ere*. . . . 47 eñitan. (1).

ee 27 » (Lañaun) Sakan, geien).

B) *Etxera*, etsera, itxera etc. . . . 41 eñitan.

etxea, itxea 25 » (Lañaun, Geien).

itxia 2 » (Etxal, Elgoñi).

Etse, ts-rekin (Urzaink, Bidang, Eskar, Yaufi, Espar).

20 *xerí*. 16 eñitan (Bazi, Aezk, Pr-Ald).

xakur 6 » (Garzain, Aspáfen, Ainizio,

(1) Gaur ere bai=tambien esta noche (yaufiet). Egun ere bai=también hoy.

Amai, Etxal, Abaufeg).

<i>xuri</i>	22	efitan
<i>txerí</i>		Gañerako efi guzietan.
<i>txakur</i>		» » »
<i>txuri</i>		» » »
21 <i>īalo</i>	5	efitan (Abaufep, Yauñi, Luzaind, Ainzio, Añaiz).
<i>guñi</i>	23	» (Bazt, Aezk, Bortzeñi, Ultz).
<i>īunñun</i>	24	»
<i>īu</i>	6	» (Etxañi-aran, Lakun, Alkoz, Garzain, Ariz, Lekar).

Tu ordez lixtu esatu due geienak: gañerako itz oriek *tx*-rekin. Ultzin ere esaten da *īalo* kantu batean: *īalo*, *īalo*, *īalo*, *īin*. ator etxera Matiñ.

22 *Otsa, asotsa erotsa, arábotsa*. Efi guzietan *ts*-rekin. Utsa, utse: Efi guzietan *ts*-rekin. Aberats, abrats, abeats, abeats: efi guzietan *ts*-rekin.

23. *U + A.*

A) <i>Eskua</i> . . .	15	efitan.
<i>eskuba</i> . . .	10	» (Sakan).
<i>eskupa</i> . . .	1	» (Irib-aezk).
<i>eskue</i> . . .	30	» (Lafaun, Ultzam geien).
<i>eskube</i> . . .	2	» (Irañet, U-Arak).
<i>eskuu</i> . . .	4	» (Madoz, Lekunb, Beruet, Ezkuñ).
<i>eskia</i> . . .	4	» (Luzaid, Bidang, Urzain, Ustaf).
B) <i>eskuan</i> . . .	16	efitan.
<i>eskuban</i> . . .	6	» (Sakan).
<i>eskuen</i> . . .	4	» (Osk, Yaben, Yabar, Egiañet)
<i>eskuben</i> . . .	6	»
<i>eskuun</i> . . .	7	»
<i>eskun</i> . . .	22	»
<i>eskian</i> . . .	4	»

24.

Es Iñon ez: guziek *z*-rekin.

beres 15 efitan (Sakan geien, batzu Lafaun, Basabur, Ultz).

ures 15 »

25. *Ai + I.*

Sailean. . . . 4 eřitan (Abaufe bietan, Oroz-bet, Ustarf).
sailean. . . . 2 » (Ezkuſ, Gartzaun).

Gañerakoak sañan, sañen, etc. Efi askotan ez dute esaten *sail* itz au. Sail ordez *mail* eta *mailu* galdetu zun lankideak, eta geienak *malean*, *maļu*.

26. *A + en.*

Aen edeňa. . . . 2 efitan (Uitz, Ainzio).
ain. 41 »
aīn. 28 »
aīn. 9 » (An emenka).

Ai + s.

- A) *Aisa, aise*. . . . 48 eřitan s-rekin.
aixa, aixe. . . . 17 » x-rekin.
- B) *Maisu*. 16 eřitan.
Maixu. 6 »
maxu. 1 » (Betelu).

Gañerakoetan *maistru*, *eřienta* (luzaid) etc.

28. *Ai + t.*

Aita, aite. 37 eřitan (Aezk, Salaz, Uitz, Sakan).
aīta, e. 6 »
aīta, e. 25 »
aitxa. 1 » (Arbizu?)

Aitajina (Ustarotz) *aitejina* (Urzaink). *Aitara* (Espartz).

29. *Ai + tz.*

Gaitza, e. Bat ez beste efi guzietan *tz*-rekin.
gatxa. (Bidangoz).
geitza. 3 eřitan (Afuatzu, Arbizu, Etx-Aran).

30. *Ai + z.*

Aize. Bat ez beste efi guzietan.
aixe. Lesakan.

31. *Ei + I.*

Ereile, erile. 10 eřitan (Aezk, Bazt).
ereile, eraile. 9 » (Lafaun geien).

ereñe 2 » (Etxal, Ezkuñ).
ereitale 1 » (Añaiotz).

Geienak ereintzale esaten dute.

32. *Ei + n.*

Bein. 55 efitan.
bein. 19 »

33. *Ei + s.*

Eisa Napafoan *nabar*, *nabare*, *nabasare* esaten da.

34. *Ei + t.*

- A) *Beite*. ¿Uitzin?
bite Bidangoz.
biñe 2 efitan (Lesak, Uitz) Maizago entzuten da
Napafoan *bitez* asko direnean).
bedi 19 »

Geienak deila, dayela, etc.

- B) *Geitu*. Napafoan *geiagotu*, *diagotu*, *yagotu* t. a. *Deitu* ageri da liburutxo batzutan, baño, ain zuzen ere, t samuña duten efietan usuago: deifu, leífu t. a.

Z) *Ereiten, eriten, eritan*, etc., *i + t.* 31 efitan.

- ereíten, eraíten* 25 »
ereñe 6 » (Elgoiti, Ez-kuñ, Yaben, Lakun-Liz-beng, Arbizu),

Askok *eregieten*, *erekíten*, *erekitzen*, *edekitzten*, etc,

55. *Ei + z.*

- Leizar*. Iñon ez,
Laizar. Lesakan.
Lizar. 60 efitan.
lizer 7 » (Oskoz, Yaben, Yabar, Irañet, Lizarzo, Osteritz, Arizk).

56. *Oi + I.*

- Soil*. 12 efitan.
soiñ. 14 »
soñ. 2 » (Iribet-aez, Amaiur).
soilik. 3 » (Lekar, Oster, Iturm).

soñik . . . Ez da ageri aditz-ondo edo *adverbio* au ik-rekin. *Soñak* Lesakan.

soñik . . . 13 efitan (Geien Lañaun).

Efi askotan ez da oitzen itz au, ta oitzen denetan ere ez da efaz berextea.

37. *Oi + n.*

Soineko . . . 8 efitan (Abauŕe bietan, Olazi, Urdi, Bakai, Iturm, Alsas, Bidang).

soñeko . . . 4 » (Ainzio. Beorburu, Oroz - Bet, Lesak).

soñeko . . . 53 » *Soñoko* Azpirotzen.

38. *Oi + t.*

Loitu . . . 20 efitan,

Loñtu . . . 38 »

Loñtu . . . 4 » (Lesak, Elgoſi, Nabaz, Lakun).

lotxu . . . 1 » (Arbizu).

Loiextatu (Aŕiet, Abaufep) *loextatu* (Osteritz). Gañerakoan zikindu.

39. *Oi + z.*

Goizeko . . . Iru ez beste efietañ. (*Goizko*, Etxalaen).

Goixanko . . . 1 efitan (Bidang).

goizko . . . 2 » (Urzaink, Ustaf).

40. *Au + a.*

A) *Lauak* . . . 12 efitan (Baztan ald).

laubak . . . 2 » (Iturm, Bakai).

labak . . . 11 » (Bortzefiek-inguruan).

lauek . . . 21 » (Lañaun, Basabur, Ultz).

laubek . . . 1 » (Urdiain).

labe . . . 1 » (Leitz).

laurak . . . 13 » (Aezk, Sal, Efonk).

laurek . . . 7 » (Sakan).

B) *Gau + az.*

Oauaz . . . 8 efitan (An emen).

gaubaz . . . 1 » (Olazti).

gabaz . . . 22 » (Aezk, Salaz, Bazt geien)

gaiaz . . . 3 » (Bidang, Urzain, Ustaf).

- gauez* . . . 24 efitan (Laŕaun, Basabur).
gabez . . . 6 » (Egiaŕet, Goizuet, Yaben, Uitzi,
Lekunb, Azpir).
gaubez . . . 3 (Sakan).

Batzuk gabes, gauzes, etc. Ikus bedi 24 gaŕen zenbakia.

41. *Au + e.*

- Auek* . . . 2 efitan (Yabar, Elgoŕi).
gauek . . . 1 » (Beorburu).
aubek . . . 1 » (Elgoŕi; baita *ok ere*).
auk . . . 4 » (U-Arak, Afuatz, Liz-beng, Irañet).
aiek . . . 1 » (Lanz).
aik . . . 1 » (Alsas).

Ebek, gebek, kuek, okek, kek... Geien geienak *ok*. *Hok* Narbarten eta Luzaiden.

- B) *Gauerdi* . . . 35 efitan (Sakan, Ultzam geien).
gauberdi . . . 7 » (Burund geien).
gaberdi . . . 27 » (Bortzefi, Basab-iki, geien).
gaierdzi . . . 3 » (Efonk).
Z) *Gauero* . . . 24 » (Ultzam, Araiz, Laŕaun batzu).
gaubero . . . 11 » (Sakan).
gauro . . . 1 » (Etxal).
gabero . . . 25 » (Laŕaun, Basab, Bortzefi).
Gauoro . . . 5 » (Iribel, Abaurep, Yaufi, Luzaid,
Ainzio).
gaboro . . . 5 » (Abaufez, Espar, Eskar, Oster,
Ainzio).
gaoro . . . 1 » (Osteritz).
gaioro . . . 3 » (Bidang, Urzaink, Ustaf).
D) *Laueun* . . . 17 » (An Emenka).
lauegun . . . 4 » (Lekar, Lanz, Alkoz, Afaiz),
lauehun . . . 1 » (Luzaid).
laureun . . . 5 » (Iribel, Abauefa), Orozbet, Es-
kar, Madoz).
lauregun . . . 4 » (Abaufep, Espar, Yaufi, Olazti).
labeun . . . 1 » (Lezak).
lareun . . . 6 » (Arano, Goizu, Leitz, Uitz, Az-
rir, Betelu).
laurein . . . 3 » (Bidang, Urzain, Ustaf).

Askok *lauetan eun*; *labetan eun* (amaiur); *lau aldiz egun* (bakaik, urdi) lautan eun (an emenka).

Eun ordez *aun* Olon; *iaun* Donamarin.

- E) *Abri*. (euri ordez). 2 efitan (Urzaink, Ustaf).
lebri (leuri ordez). 2 » (Leitz, Ultz, Azpir).
Auri, lauri nauiri, leguri, neguri, ez da bakan esaten.

42)	<i>Garaurik</i>	3	efitan (Orozbet, Afaiz, Alkoz).
	<i>garauiek</i>	1	» (Lanz).
	<i>gaueik</i>	1	» (Eskuf).
	<i>gauik</i>	9	» (Beruet, Beramen, Leitz, Mad, Lezet, Intz, Añnatz, Urdi, Iraiz).
	<i>gaubik</i>	3	» (Betelu, Bakai, Lakun).
	<i>gaurik</i>	5	» (Olazti, Liz-Beng, Irañ, Iturmend, Etx-Aran).
	<i>gairik</i>	1	» (Ustaf).
	<i>gaurik</i>	1	» (Arbiz).
	<i>gaberik</i>	1	» (Ares).
	<i>gabik</i>	10	» (Baztan-Ald, Geien).
	<i>granoik</i>	1	» (Ainzio).
	<i>gaanoik</i>	2	» (Yabar, Olo).
	<i>karanoik</i>	1	» (Oskoz).
	<i>bihirik</i>	1	» (Luzaid).
	<i>biirik</i>	1	» (Lezak).
	<i>birik</i>	1	» (Etxal).
	<i>pikorik</i>	2	» (Etxal, Lizas).
	<i>ezkatik</i>	1	» (Elgoñi).
	<i>ja ere</i>	1	» (Irib-Aezk).
	<i>papurik</i>	1	» (Bera),

43. *An + o.*

<i>Gauon</i>	34	(Aezk, Salaz, Basabu, Afaitz, Sakan, Ultz).
<i>gaubon</i>	4	(Irañ, Urdi, Olazt, Lakun).
<i>gabon</i>	29	
<i>gaon</i>	2	(Iribef, Leitz).
<i>gabuon</i>	1	(Egiafet).
<i>gaion</i>	1	(Bidang).
<i>gaionik</i>	2	(Ustaf, Urzain).

- B) *Lauori* 2 efitan (Orozbet, Arbizu).
labori 1 » (Elgoñi).

Lauotiturik (oroz-bet). Lañi laboriyak ikusi ditugu (Elgoñi).

44. *Eu + a.*

<i>Neuan</i>	lñon ez.
<i>neuen</i>	1 eñitan (Egiafei).
<i>nuen, nue</i>	21 » (Aezk, Salaz, Usezt, Geien).
<i>nuben</i>	2 » (Etxal-Bera).
<i>nûn</i>	2 » (Oskoz, Narbart).
<i>nun</i>	5 » (Lafaun).
<i>neen</i>	1 » (Alsasu).
<i>nien</i>	2 » (Bidang, Urzain).
<i>niezun</i>	1 » (Ustarf).

Oar.—Erizkizundi askotan ez da ageri galde onenik. Nere ustez geienik nuen eta nun esaten da.

45. *Eu + e.*

<i>zeukek</i>	lñon ez
<i>zeurek</i>	3 eñitan (Etxal, Elgoñi, Azpaf).
<i>zuek</i>	18 » (Sakan, Ultzam).
<i>zuk</i>	2 » (Ultzi, Madoz).
<i>zeek</i>	2 » (Abauñep, Alsas).
<i>zek</i>	2 » (Olazti, Iturm).
<i>xek</i>	1 » (Urzaink).
<i>ziek</i>	2 » (Luzaide, Ustarfotz).

Galde au ere ez da ageri liburu askotan.

46. *Argina* 25 eñitan (Aezk, Sal, Efonk, Burund).

<i>burdina</i>	11 »
<i>ozpinare</i>	27 »

Gañerakoetan argiñ, buñni ozpiñ.

47. *U + e.*

<i>eskuetan</i>	30 eñitan (Aezk, Salaz, Ultz, bazi).
<i>eskubetan</i>	2 » (Arbizu, Olazti).
<i>eskupetan</i>	1 » (Iribet-Aezk).
<i>eskietan</i>	3 » (Efonk).
<i>eskûtan</i>	2 » (Lesak, Bera).
<i>eskutan, eskuten</i>	31 » (Lafaun, Sakan, Digube (añuatz.u-arak); digubie (etx-aran); digue geienak.

Ai + a.

<i>Ibaia, e</i>	11	eritan (An Emenka) <i>Ugalde</i> maizago. Itzau ez duten erietan <i>maiaz</i> edo <i>mayaz</i> galde egindar.
<i>ibaya, e</i>	4	eritan (Iribef, Etxal, Azpir, Aintzio).
<i>ibeia</i>	1	» (Iribef-Aez).
<i>ibeiya</i>	1	» (Bakaik).

Ugalde = río grande; *ugatza* = río (Urzainki).

<i>eraiak, ek</i>	31	eritan (naste; askotan <i>i ta y</i> , bietara).
<i>erayak, ek</i>	21	»
<i>eraiyak, ek</i>	8	» (Burund).

49 *Ai + n*

<i>Gainera</i>	9	» (Iribef, Abaufeg, Olazt, Urdi, Bakai, Iturm, Bidang, Ur- zaink, Ustaf).
<i>gaiñera</i>	7	» (An Emenka).
<i>gañera</i>	46	»

50. *Ei + a.*

<i>Beia, e</i>	58	» (Nâste).
<i>beya, e</i>	23	» (»).
<i>beiya</i>	5	(Olazi, Urdi, Bakai, Iturm, Etx-Aran).
<i>bea</i>	3	(Abaufea, Oster, Ainzio).

<i>ego</i>	4	» (Amai, Afaiz, Arizk, Lekar).
<i>eyo</i>	3	» (Espir, Beruet, Bi- dang).
<i>eio</i>	8	Uitz, Lekun, Madoz, Azpir, Betelu, Intz, Urzain, Ustaf).
<i>eo</i>	3	(Espir, Yaufi, Es- kar).
<i>ijo</i>	25	(Sakan, Goiefi),

<i>yo</i>	9	efitan	(Bortzeñi ta Inguru).
<i>iio</i>	1	»	(Iragi).
<i>io</i>	15	»	(An Emenka).
<i>irindu</i>	1	»	(Elgoñi).

51. *Oi + a.*

<i>Idoia, loia etc.</i>	26	»	
<i>Idoya, loya</i>	21	»	
<i>loiya</i>	3	(Liz-Beng, Urdi, Olazi).	
<i>Idoia.</i> Etxalafen, Egiafetan, Urdiainen; gañerako efietan ez da ageri. <i>Lingilda, lingitza, linga</i> Elgoiagan; ligirda Iribetin; iztilla Narbarten. <i>Lizketa, lizkeri, lizkedi, Osteritzten.</i>			

52. *Oi + n.*

